


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/04/24) Hurrengo saioa: (2018/05/08)	Maiatzeko ekimenen plangintza	Maiatzerako aurreikusten diren hainbat ekimenen egutegia zehazten aritu gara: San Isidro eguna, San Bartolome Elizako erretaularen inguruko hitzaldia, Nafarroako Itsasokoen bisita, Seat 600en kontzentrazioa,... San Isidro eguneko bazkarirako ohiko lekuetan egingo da izen ematea (Ostatun eta Alegin). Erretaularen inguruko hitzaldia Koldo Mitxelenak izango da maiatzaren 15ean eta autobus zerbitzua jarriko da Itsasotik. Nafarroako Itsasokoen bisita eta Seat 600en kontzentrazioa maiatzaren 27an izango dira.	- Hitzaldira joateko autobusa kontratatu. - Nafarroatik datozenerako, egitaraua zehaztu.
	Ekaineko ekimenen aurreikuspena	Beste ekimen batzuk ere aipatu dira: musika emanaldia, Alegiako obren inaugurazioa, urtero herritik egiten den irteera,...	- Datak eta egitarauak zehaztu.
	Gure esku dago ekimena	Ekainaren 10ean giza katea egingo da Donostiatik Gasteizera. Itsasori dagokion kilometroa Murgian (Araba) izango da eta autobusez joateko modua izango dugu (aldez aurretik izena emanda)	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/04/30) Hurrengo saioa: 2018/05/14	Formazio desberdinak	- Euskara ikastaroa: kopiak atera dira eta banaketa antolatu da. - BBB ikastaroa: guk proposatutako datak aztertzen ari direla aipatu da. - Sueskola: ikastaroren bat egiteko proposamena bidali zaie baina oraindik ez dugu inongo erantzunik jaso.	- Euskara ikastaroko dauden eskaerei erantzun egokia eskaintzeko proposamenak egin. - BBB ikastaroa: Datak finkoak direnean, herrian informazioa zabaldu
	Maiatzeko ekimenen plangintza	Maiatzerako aurreikusten diren hainbat ekimenen egutegia eta jakinarazpena diseinatu dugu: ekintza, eguna, lekua, ordua, ... Gainera, Erretaularen hitzaldiari dagokionez, eta duen garrantziaz ohartuta, herritarrei Koldo Mitxelena-ra joateko gonbidapena eta programa ofiziala bidaltzea adostu dugu. Honetaz gain, kartel ofiziala ere herriko gune jakinetan ipiniko da.	- Informazioa herritarrei bidali. - Nafarroatik datozenerako, egitarauaren berri herritarrei eman eta abesti herrikoien txostena prestatu.
	Euskaraldia	Gipuzkoako batzordekideen 1. mintegiko informazioa partekatu da eta herri bezala zein antolaketa egin daitekeen eztabaidatu da. Batzorde bat eratzearen beharra ikusi da.	- Ekainaren 6ko prestatzaileen formazioan parte hartu.



	“Etorkizuneko herri txikiak” topaketa	“Etorkizuneko herri txikiak: ipuin eta topikoetatik harago” XVIII. kongresua antolatu dute Otxandion maiatzaren 12an. Bertaratzeak herrirako duen garrantzia azpimarratu da.	- Bizpahiru kideko taldea osatu.
--	---------------------------------------	--	----------------------------------

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/05/02) Hurrengo saioa: (2018/05/16)	Alegiako lanen azken erabakiak	Iturginak Elkarteko ontzi-ikuzgailuari sarbidea jartzeko Udalekoak enpresarekin egongo dira. Parkea jarri behar duen enpresarekin zoruaren diseinua erabakiko da. Beste hilabete batean bukatuta izatea espero da	Aste honetan bertan aparejadorearekin eta enpresakoekin elkartuko dira
	Falta diren edo hondatuta dauden seinaleak	Parkea jarriko duen enpresa berak (MaderPlay) egingo ditu eta laginak hartu	Lehengo zerrendari logoa jartzean egin den diagnostikoan jasotakoak gehituko zaizkio
	Alegiko frontoiko argiak	BERDINGRUP enpresak 12 foko eta 4 fluorezcenteren aurrekontua eta proiektua luzatu du (3031€ berehala onartzen bada). Prezioan ez da jartzea sartzen.	Udal langileak aldatzerik izango lituzkeen jakin eta gaur egun daukagun elektrizistak prezio horiek berdintzerik ote daukan
	ITE Etxeetako Inspezio Teknikoa	Aurreikusten denez ITE Dekretuak ez du aldaketarik izango eta etxe guztiek ekainerako epean egin beharra izango dute. Bilera bat egitea erabaki da herritar guztiak jakinean jartzeko. Bestalde, etxeen erroldan akats ugari antzeman dira eta zuzentzeko prozedura abian jarri beharko da.	Miriam arkitektoarekin bilera prestatu eta etxeen errolda nola zuzendu aztertu
	Zaborra hobeto kudeatzeko erakundeak	Maiatzaren 9an Mutilon Goierrri aldeko hainbat herri elkartuko dira eta beste hainbat Araman hurrengo egunean. Helburua da gaurko egoerari alternatiba eraginkorrak bilatzen joatea, esperientziak partekatuz	Udaletik partaidetza izango da